

UDAL BRIGADEN ORGANIGRAMA PROPOSAMENAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 20an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko azaroaren 26an, EH Bildu udal taldeak kontrol-mozio bat aurkeztu zuen Udalbatzan bi eskaera eginez: alde batetik, Udal Gobernuak brigaden egitura azter zezala zerbitzuan hobekuntzak egiteko eta, bestetik, LEP bat egiterakoan lehenasuna eman ziezaiola udal-brigaden gaiari.

Nahiz eta Udal Gobernuak kontrol mozioaren aurkako botoa eman zuen, brigadei buruzko azterketa martxan jarri zuen.

2016ko apirilaren 28an, txostenik aurkeztu ez zela ikusita, eta ikerketa noiz amaituko zen argi ez zegoenez, bigarren kontrol mozio bat eraman genuen udalbatzarrera ondorengoa eskatuz: alde batetik, udal brigaden azterketarekin bat datorren kronograma bat zehaztea, azterketaren ondorioak aurkezteko epea ezarri; eta, bestetik, Udal Gobernuak kronograma eta azterketaren amaiera data konpartitu zitzala langileen batzordearekin, azken honek behin baino gehiagoetan eskatu duen bezala.

2016ko irailean, brigaden azterketari buruzko berririk gabe jarraitzen genuenez, berriro ere galdetu genion zinegotzi ordezkariari. Alfonso Gurpegui zinegotziak erantzun zigun egun hartan, eta azterketa atzeratu zela esan zigun. Zinegotziak azaldu zuen departamendu askorekin kontrasteak egiten ari zirela eta azkeneko zirriborroa Lehendakaritza zegoela, onspenaren zain. Azarorako azterketa eta haren ondorioak partekatuko zirela esan zigun.

Urtarrilean berririk gabe jarraitzen genuenez, berriro ere eraman genuen gaia batzordeetara. Bertan, zinegotzi-ordezkariak erantzun zigun brigaden zirriborroa prest zegoela eta langile batzordearekin bilera bat egingo zutela horren inguruan hitz egiteko.

Dagoeneko, langile batzordeak bere iritzia adierazi du:

- 2017rako proposamenean ez da enplegu publikoa sustatzen eta organigrama murriztea proposatzen da: berezko organigraman 94 lanpostu zeuden eta Udal Gobernuak 86 lanpostuko muga proposatzen du.
- Margolarien brigada indartu gabe gelditzen da.
- Ez da LEP bat egiteko konpromisoa hartzen.
- Ez da epe luzerako kronograma bat aurkezten, proposamena 2017ra mugatzen da eta urte bakoitzean egon daitekeen aurrekontuarekin inprobisatzen da.

